69

dia 12 mayo - Llama por teléfono don Fernando Valera preguntando por Irujo. Le informo del viaje a Bonn y me deja el motivo de su llamada que es:

-- a ver si pueden asistir a una comida que tendrá lugar el día 19 del corriente, reunión que tiene por razón la llegada de la señora Kent y del señor Giral a Paris. Volverá a llamar la semana que viene.

-- informa también del fallecimiento en México del señor Arauz. Dice que enviará, a mi nombre, una nota necrológica"aunque -añade- no sé si la querrán publicar ya que el fallecido era el Gran Comendador de la Masonería..."

# NEURTITZ BERRIAK
# URTAIN'I IARRIAK

## (Ameriketa'tik bialiak)

*Artzik, Urtain, goraintzi*
*ei beste ontatik,*
*urtetan urrun dauden*
*ezpaiñetatik.*
*Arturik bide dituk*
*xurigoetatik,*
*maltzurkeriz biotza*
*blai dutenetatik*
*Ez uste, orratik,*
*loxintzeagatik*
*txapelduntzagatik*
*gatozkigula, aatik,*
*urtetan urrunduok*
*egiagatik!*

---

*Iaunak, ire eskuetan,*
*íarri dik indarra;*
*guk, ordea, maitago*
*biozsugarra;*
*gizonak ortan ba'lu*
*bere gai bakarra,*
*ez laukakek, iñolaz,*
*ez alderdi txarra!*
*aski duk manddarra,*
*naiz izan kaxkarra,*
*ostiko ta uzkarra*
*autsiko dik marra;*
*gizonak onena dik*
*burua azkarra.*

---

*Beste asko lez, i be,*
*txoratu diruak...*
*argatik uts egin dik*
*nunbait buruak.*
*Euskaldun danok igan*
*genizkin asmuak,*
*ludiari ik aitortuz*
*erri gaitz izuak;*
*udaize muxuak,*
*limuri sutuak,*
*garaitza, kutsuak*
*mozkortu zentzuak...*
*el ala atzartuko au*
*laxter neguak.*

---

*Ik gaur íaso ezaken*
*Euskalikurriña,*
*ainbat semeen odolez*
*or duk zutiña;*
*ikusirik diagu*
*ik íaso zikiña:*
"Giputz idizkoteak"
*erderaz egiña.*
*Galdu duk ekiña,*
*abagune miña,*
*eusko seme ziña*
*izateko diña!*
*saldu truk artu baituk*
*zillar likiña!*

*Euzkadi'k ainbat seme*
*ba dizkik onenak,*
*ikurrin ori ziñez*
*zaintzen dutenak.*
*Ez al dituk ikusten*
*artzen kristorenak,*
*aur, neskatxa ta mutil,*
*gizon íatorrenak;*
*apaiz zintzoenak*
*espetxetan denak;*
*nun dituk, alenak*
*ik oíen almenak!?*
*Oíen garaipenari*
*gure omenak!!*

---

*Gizon batzuk uzkailliz*
*zerraldo lurrera,*
*otsataputza naiko*
*baituk atera.*
*Luditxapela artzeko*
*izan duk aukera,*
*baiñan kikil auzpez aiz*
*ukaldi batera,*
*kuzkur, limurbera,*
*íoanik gurtzera,*
*ire enda ukatzera,*
*Erria saltzera!*
*Lerde zarkul batek au*
*bota ankapera!!*

---

*Deus gaitik baserria*
*ez omen salduko...!*
*Iri, amonak ori*
*dik sinistuko:*
*nolaz eu saldu aiz ba*
*eskatu orduko,*
*españatarra aizela!...*
*au nori sartuko!!*
*Iatorri galduko,*
*ama duk lekuko;* (x)
*ez duk trukatuko,*
*naiz ik egin uko!*
*Etxe saltzez ez gaituk,*
*ez, arrituko!*

---

*Kezka arrastorik ba'duk*
*Urtain, biotzean,*
*itzul adi lenbailen*
*oan bidean:*
*Euskalikurriña ar zak*
*beso zail artean,*
*Sanson egin au Iaunak*
*Euzkadi maitean;*
*Erria oinpean*
*iltzer ikustean,*
*ire kemenean*
*íaso zak aidean...*
*Iar zak txapel au ire*
*buru gaiñean!!!*

*MATXIN*

(*) testigo.

67

Don Manuel: Que llame Vd. a Porera. La reunión previa al viaje a Bonn ha sido aplazada. Para más detalles VAU 56-85

Item plus: Llamar a Marcino Suárez LOU 91-87 (15'20 horas)

4-V-72 a las 12'20 horas